

Beti halakoa



ANTTON OLARIAGA



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA

Errusia beti halakoa izan da”, batak borobil. Besteak baietz, “Errusia beti izorratzen”. Autobusean jarriak doaz bi gizonak, bata bestearen kontra mugikorraren pantailari begira. Iritzi handiak bi autobus geltokiren artean, Instagrameko harietan barrena. Gisa berean, hamarkadetan zehar, Iparraldeko herrietako ostatu zoletan debalde hastiatzen zen Alemania, kategorikoki eta definitiboki. Berdintsu.

Ukrainako eskualdeetako ezagutza hain gutxi genuen berriki arte, ez bada, ekialdeko hainbat lurralde bezala, egonkortasun politiko eskaseko gunea dela. Krisia bat-batekoa izan den bezala, bapatekotasun berarekin esnatu da norbanako arrunta Errusiaz hau dela eta hura dela, orojakile eta epaile, baina beti ere gogoeta sobera pusatu gabe.

Irudiek beste mende batekoak dirudite, baita elkarri egindako mehatxuek eta desprezioek ere. Alta, krisi geopolitiko hau biziki aberasgarria da beste gisaz XXI. mende honen osasun eskasaz erakusten duenarengatik. Ikasgai anitzetakoak izan dira azken asteak, horien artean bat nabarmentzekotan, azpimarratuko nuke zigor neurriena eta horien anbiguetate ikaragarria.

Lehendabizi, zigor neurri multzo horrek ez luke historian parekorik kausituko. Batetik izan duen zalutasunarengatik, bi aste barne indarrean jarri baitira; bestetik, ahobatezkoak eta ia mundialak izan baitira, kasik sobera nabarmenak; eta azkenik, izariarengatik, horien ondorioak errusiar jende xume guziari bezala, munduko gainerateko guziei ere eraginen baitie epe laburrean eta seguraski luzaz.

Bestalde, deskubritu dugu, lehenik, herri baten ontasunak, nahiz herri horretako herritarrenak, munduan zeharreko bankuetan kokatuak diren diru zamak baita beste gisako jabegoak ere, egunetik biharamunera identifikatuak eta lokalizatuak izan daitezkeela, baita konfiskatuak. Eta hori guzia horretaz nehor kexatu gabe. Hamarkadak dira paradisu fiskalak eta iruzurrak salatzen direla eta ezin dela neurri bakar bat ere hartu, ez egitura ez aberatsen kontra. Eta hor, hamar egun barne, bat-batean, bahitzeak erabakiak eta gauzatuak dira. Irakeko, Siriako, Afganistango gerlen kasuan ez bezala, erraza agertu da SWIFT eta diru sare erraldioen bazter uztea Errusia, ordura arte ezinezkoa zirudien arren.

Bereziki aipatzekoa da beste hauxe: iheslariari ongi etorria egin dakiekeela agertu da. Harago, ez dela baitezpada arazoa ehun milaka jenderen exodoa xurgatzea eta kasu honetan Ukrainaren ohoragarria ere gerta daitezkeela. Orain arte ez genuen sekulan hainbeste erreportaje ikusi telebista kateetan etorkinen harreraren espantatzeko. Ekialdetik lehenagotik migrazio oldeak gertatu izan zirenean, ez genuen gaur bezainbateko esku zabaltasun diskurtsorik entzun. Ez zen egon beltzak, magrebtarrak, txinatarrak, indiarrak hartzearen aldekorik.

Eta suzko oldar horretan zer erran gutxi eman dute jokamolde batzuek: neurri kulturalak edo. Han eta hemen artista errusiarrak programazioetatik baztertzen dira, antzerkiak, operak, balletak, kantariak. *Autodafé* usaina airean.

Gerla hau ez da bakarrik Ukrainakoa, ez bakarrik lurralde batzuetakoa. Gerla mediatikoa da, Instagramekoa, handien interesekoa, sobera inpulsi-boa, sobera ahobatezkoa, sobera kategorikoa, sorgin ehizetan bezala. Eta eskalada horretan ez da elementurik agertzen giroa lasaitze aldera. ●